12. zk ./ 2020

# Arreta Soziosanitarioko Buletina

## Iraila 2020

**Gonbidatua**

### *Proposamen disruptiboak desolazio-garaietarako*

Askotan pentsatu izan da "desolazio-garaietan ez egin aldaketarik" zioen Ignaziar esaera gonbite bat zela ezer ez egiteko. Ez zen hori pentsalariaren ideia. Ez litzateke zentzuzkoa egoera berri eta konplexuen aurrean ezer ez egitearen aldeko jokabidea sustatzea.

Gaur egun, zaila da onartzea pertsonen osasun-arretaren konplexutasuna osasun-zerbitzuetan bakarrik oinarritzen dela, eta, are gutxiago, perspektibaren fokua zabaltzen ez bada behar akutuetatik kronikoetara. Testuinguru horretan kokatzen da eremu soziosanitarioa, zainketa jarraituen aldeko apustua, arreta integratuan duena adierazpenik koherenteena. Eredu horren helburua da erantzunak ematea bizitzan zehar pertsonek dituzten osasun- eta ongizate-premiei, eta horretarako egiturak eskura jartzen ditu; zaintza-zerbitzuak administratu, antolatu eta finantzatzen ditu; profesionalak prestatu eta koordinatzen ditu, eta, azken batean, bateratu egiten ditu prozesuak eta metodoak.



Eredu hori hasieratik saiatu bada ere osasun-sistema eta sistema soziala lotzen, ezin da ahaztu osasun-prozesu kronikoen zati handi bat jaiotzean hasten dela, edo haurtzaroan eta nerabezaroan garatzen dela. Pertsonen bizitzako etapa horiek hezitzeko etapak dira. Etapa horietan, diziplina anitzeko ikerketa askok adierazten dute haurren osasun- eta ongizate-baldintzak hobetzea izan behar dela helburu estrategikoa, horrela desberdintasuna eta bazterketa-arriskuak murrizten direlako eta etorkizuneko inbertsio sozial produktiboa delako.

Ondorioz, eremu soziosanitarioa zabaldu egin behar da, eta eredu jarraitu berri bat eratu, sozial, sanitario eta hezitzailea, pertsonengan zentratuta, eta bizitza osoan zehar dituzten beharrei erantzungo diena. Erantzun hori ezin da zatikatua izan, ezta noiz behinkakoa ere. Arreta integratuaren ereduak orokortzeko zailtasunak dituen arren, integraltasun-printzipioari eutsi behar zaio, eta horrek esan nahi du hezkuntza-sistema prozesuetan sartu behar dela. Euskadiko Arreta Goiztiarreko Eredua, hedapen mugatukoa bada ere, gizarte-, osasun- eta hezkuntza-espazio horri buruz aurki daitekeen adibide bakarrenetakoa da. Izan dezagun hori kontuan. Desolazio-garai hauetan erantzun berriak behar ditugu, nahiz eta horiek disruptiboak izan eta aldaketak egitea suposatu.

**Ramón Muñoz Cano**

**Hezkuntza Saileko Arreta Goiztiarreko koordinatzailea. Eusko Jaurlaritza**

# Albisteak




### Preskripzio sozialeko esperientziak Erresuma Batuan

Gehiago irakurri...




### Bizitza luzeraren iraultza (Barcelona Societat 25 zenbakia, 2020)

Gehiago irakurri...




### Haurrak babesteko politiken ikuspegi europarra

Gehiago irakurri...




### Ingalaterrako esperientzia: Arreta Integratuko Sistemak, arreta eta zaintzaren hornikuntza tokian-tokian eraldatzea

Gehiago irakurri...




### Zahartzen ari diren gizarteetan bizi-kalitatea hobetzeko prebentzio-politikak

Gehiago irakurri...

## Albisteak




**Lehen mailako arretako medikuen zeregina osasunarekin lotutako premia mediko eta sozialen koordinazioan 11 herrialdetan. Erresuma Batuaren kasurako berariazko azterketa**

Gehiago irakurri...




**Osasun digitaleko estrategia Danimarkan**

Gehiago irakurri...




**Zahartzaroari begirada bat genero-ikuspegiarekin, politika publikoetatik**

Gehiago irakurri...




**Zahartze osasuntsua zainduz. Erresuma Batuko adineko pertsonen immunizazio-tasak hobetzeko irtenbide potentzialak (ILC, 2020)**

Gehiago irakurri...

## Albisteak



### Big data, Gizarte-zerbitzuentzat erronka

**Gehiago irakurri...**



### Mendekotasuna artatzeko gizarte-babeseko sistemei buruzko hausnarketa

**Gehiago irakurri...**

ética sociosanitaria
EHU – UPV

### Etika sozio sanitarioa UPV/EHUk eskaintzen duen graduondo tituluaren edizio berria. Izena emateko epea zabalik!

**Gehiago irakurri...**

**Editore Taldea**
Lucía Iñigo, Aitor Lopez de Aberasturi, Miren Luzarraga eta Catarina Paz Camaño

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorrean xedatutakoa betez, argitalpen hau bidaltzeko zein beste argitalpen batzuen berri emateko zure baimena eman diguzu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, **baja hemen** eman dezakezu coordinacionsosa@bioef.eus helbidera idatzi ezkero. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza, Arreta Soziosanitarioa, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Informazio honetara iritsi zara eta interesgarria iruditu zaizu? **Buletin hau ere jaso eta Arreta Soziosanitarioari buruzko informazioarekin egunean izatea nahi duzu?** Gure webgunean **alta eman dezakezu** esteka honen bidez: http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/